

Textes / Textos / Lyriks / [www.makhiphop.net](http://www.makhiphop.net) / [www.myspace.com/makhiphop](http://www.myspace.com/makhiphop)

## Enbata dator...

Ketik surat, hitzetik hortzerat, mundua guda zelai bat, da bilakatu hamar urtez, elikatu gizakia dirugosez Atera kubazulotik 'at, mikroa armatzen dut besterik ez... Begirazak diruruntz korrikan hainbat ero, begirazan, sexu funts gabeko kleriko bero, bultza bularrak puto boterea lortzeko Akerraren aurrean ezarri dira belauniko... Hatoz , goaz, oroz, so munduari Gerla hotza pasa ta, neoliberalismoaren garai Denok amen lege honi, ziren harian zizeltzen ari Larogeita lauen, Chiapazetik puma Lakandonatik atera ta entzunarazi marruma Beste mundu bat posible zela, ametsaren arkuma Lokuma akabo, lur azpiko armada da inguma ALENA, Georges Bush-en semeak ZLEA Suntsiketa erraldoizko armen hedarazlea BM, OMC, FMI, OPEP azanblea, Mundializazio makina honen kontra hasi pelea

Akerrarekin dantzan , arima diote saldu Dios te salve putakume, dira sartu Kaos sinfoniko hontan hitza itzeldu Itzaletik erne, haize beltza da heldu Suaren erdian dantzan, begiak dirdiran Eromenaren bidean garrek sartzen ekintza, jakintza, zorrotza mintza, arma hitza  
Sarkor, iraunkor, enbata dator!

Iraila hamaika, bi zaflako hartuta, mundua da haika... W. bikoitzak dio CIAri manua eman, Ben Laden famili eskaparazi, ta egun hortan Carlyle-ek du saka pasta milioika....Afganistaneko apaizak erne, Rumsfeld, Wolfowitz, Rice Powell eta Sheney Talibanak hartuz estakuru, Carsai buru, HalliBurton, Unocall dira gaur ure beltzaren guru...Berdina Iraken sartuz, beldurra sortuz Sadam-en armak xekatzen ditugu beti Alta GI-ek dute phosphoro xuri, Faludjan erabili Okerago, AbuGrahil, Guantanamo, adibideak Diktadokrazian Ashcroften Patriot Act II Birziklatuz tortura, delokalizatuz, libertatea galduz Argi ta garbi, bala bi...Munduko Texas Rangers-ak ditu merezi AK kolpeak, bere arrano beltzek berdinak, Maneatzen dituztelako hoiek hariak, Auzituen aulkira hurbildu ki-berezi..

Beraz, aurrezko guda dute asmatu beldurrez, Bestea zapaldu, zapaldua izan ordez Arrazakeria mendebalde koloni mendeetan, Hain sakonki da sustraitua , galtzen dela inkontzientean Beslan, Kinshasa, Bali edo Shatila Eromena eromenari aurrezko miraila Mila hil! Dardarran da Herensugeen lurra Bisness is bisness, akerraren lilura Lokaletik Globalarat, Makinak eska harrakai Al gara gai erantzuteko, gorrotoaren uztaroko Suaren Garai, errauts erreka  
Musika Armatu Komando... Kanal Historiko!

Alde batez apez, bestean lari-bisness Heriotzaren aurrean gelditzen da soilik kanta Edozoin motako giganteek hankak dituzte bustinez Txantxetako ttanttoak, eman ordo kanta Garaikeri, gutizikeri, garaia kerra Garaitz eman gabe amor, hau da harkor Ihardukitzea delako eguneroko gerra Sarkor, iraunkor, enbata dator!



## Jakintza zure arma

Iluna, hotza, ilargiaren argia Oihanaren sabelean gordetu gira hamar mila Naturaren ahotsa, zuentzat beldurra, hau da niretzat familia Abereak, landareak, arbolak ikusi Ingurumenatik kamuflaren artea.. ikasi Mozorrotu kameleoi bat bezala azal margotu Lehoinbarra bezala, itzala nabarritu Sasia hemen, inork ez du hartu plazerez Emazte seme ta lagun, utzi behar nekez Herriko plaza ahanztea ere ez da errez Kezka haundiena, jakitea balio duen ala ez...Sarraskia sakatzeko, ez azken ez ta lehen, izorratu gaute, kono, beti barrez, bizi irauteko beste hauturik ez uzten emaiok kana, bai, kolpe-kolpez!!!

Tigre Tamoul baten hortz zorrotzen artean Herensugearen aurrean, zer egingo dek orain negarretan  
Jakintza zure arma! Katana kata lanzak gudaren artean!

Shun-tsu-k ikasi digu garaipenaren gakoa Bost manamendu segitzeko, da nahikoa Zeintzuk diren izan dadila gaurkoa, batailak galtzeko arriskurik gabekoa Lehenik pentsamenduaren batasuna eskatzen du, salbaitu guztiak bildu ta ahotsa ozendu...konpromisurik gabe, helburu berdin batera erne, indar guztiak zuzendu Bigarrenik denborrarekin izan lakar, epeldu jokoa aurrez aurrekoa lokar Hirugarrenik menperatu leku andana Gelditzen dena ta aldatzen den-dena Aspalditik gora-behera, urrun hurbilaren zehar Mendietako belar, herriak ezagutu behar Laugarrenik zorrotza ta zuzena izan beti, ta azkenik, haiek, heiek baledi!

Entzun, ixildu dira haize eta txori Ezer ez da gehiago mugitzen, bitxi..Hala azkenean garaia zaigu iritxi Etzak etsi, ez, atakea da hasiko...Rumorez heda strategiaren bi bertsio Dibertsioa ez da aurrez ikusiko Hitzetik hortzerat, itzaletik ateratzen gira Itzalbiderik gabe, dena ere, itzela sortzen...Jakintza arma dago betirako...Lur azpiko armada martxan ezarriko Hemen nago pasatzeko mezu positibo...Asmakizunez sistema ezarriko dugu KO Behar dira presondegi gutxio, ta liburutegi gehiago..Labana ahoan soldaduak ezin dira geldi Tanborak orain jo..ta aintzina eman beti!

## Denok ala Inor Ez!

Beraz guriak egindu, badegu zeinek agindu ez oraindik umildu alkarengana bildu Gerra nahi duen guzia, berari kendu bizia okasiua prestatzen lotan daudenak esnatzen Ez zait niri gustatzen jostatzen malizia inorekin ibiltzia, hark merezi hiltzia Gerraren bila gau ta egun, etsaia harturik lagun arrazoi ote degun edo zer datorkigun Hasteko pentsatu fusilak nola dantzatu hasteko pentsatu, bai, fusilak nola dantzatu Ez naiz gerra zale baizik eta pakearen alde zeinek nahi duen galde, berari tira dale bala bat sartu buruan aspertuko da orduan bala bat sartu buruan aspertuko orduan Ez naiz gerra zale baizik eta pakearen alde zeinek nahi duen galde, berari tira dale

Denok ala inor ez, dena ala ezer ez  
Dena ala ezer ez !

Denok ala inor ez, erraitea errez egitea zailago, doa gehiago erran gabe, ez Kaleko eskola kola boltsa betez Victoria-ko semea KO dago, beste asko lez Hei kunpai, mira, aro ero bero kamikaz orok, klaro miseriaren landareak dira Haizea ufa, itzuliko zaizu enbata bisaira Demokrazia dute gora, umeentzako kondaira Begira denetan, munduan, dira milaka hilak Anaiaren mina izan dezala zure miraila!!!

Umildadean alkarri, errespetua ekarri lege eder bat jarri bizi gaitezen garbi hori deseo nuke nik, nehork ixuri gabe odolik Gaitzak gaitu umiltzen eta pakean unitzen Ez da ere ibiltzen anaiak alkar hitzen zer den ulertu gabe, hortan galduko gerade Gu gera 7 probintzi ta lengo legerik ez utzi hoieri firme eutsi, nahiz anka bana hautsi Jaioko dira berriak gu gera Euskal Herriak Lapurtar ta Nafartar, gu denok Xuberotar Aitak hil ziren baino, semeak orain daino legea dugu guardatu ta letra zaharrik ez ukatu "Euskal herri abertzale, pentsalari ta borrokalari, herriotzaren aurrean kantuz, bizi ala hil!"



## Ke Patxa !

Odola irakitzen gehienetan, metan adarrak aurrera sartzea dut gogoan bainan hemen, zer da aldatzen, kemen ainitz emaneta , ezpata kolpe bat urean, didate esan „hei, jefe batentzat zira hartu ...“ beste putakeri bat atzetik sartu Heien defentsarentzat, txera eskasak, txatxukerriak ditu txartu Ke patxa, ke patxa, piztu peta bat ganja Kantxan MAK pasata gelditzen dira lumatxak ta odola tatxak Biktimen ahotsa moztu, edo gozatu, su mendiak ezin dira hoztu Esaidazu zure ustez, mesedez, pitokeria ezin daiteke debekatu legez Txikitasunarekin akabatu nahi ta nahiez, ez, zinez..ametsetan nabil, utopiaz urbil... Biribildu da gizartea, Monika ta Bill, lokartuta bonbak Kosovok bil, Pay the bill“ gaur edo bihar, bainan nekazariar hildoa bezain zuzen behar gira ibil Egunero hainbat adibide, palto itzultze, jukutri eta zorne Hemen denak ixiltzen, han mila hitze, ta gorotz honen gainetik , erexki gabiltz...

Ke patxa! Puneta! Heien fatxa faltsu kopetetan eskopeta kolpe bat ematekotan, haien gainetik maiz, lerratzen ez naiz...

Ke patxa! Puneta! Maisuaren moduan egon, errekaen ondoan gorpuak pasatzen itxoin, haien gainetik maiz, lerratzen naiz....

Demokrzaiarekin dute kanpaia jotzen, hemen branlatzen, sinestaraziko dute heien zintzotasuna, asuna salda, betiko saltsa, hitza dute erexki saltzen, Bush edo Al Gore, Cirac edo Lepen ze panazea, eskuin ta eskuin muturaren artean hautua pestea edo kolera, bakoitzaren haut hartzea, aiuta, uste dut bozka dela jendea lokartzea Hori eraitea aisit dela ere dakit, bainan noiztik Joko honen legea dira txit, « Hit that jazz beat » Nahi duzun mailarat egin zaitez gomit, bestenaz zuretzat ... tirrit.. Elitokrazian hitz egia agian, entzun ezina dela ezin da ezarri dudana Herriak ez duelako sekulan egizaki ukan, begiak idekirik gainetik noa segidan..

## Fruitu Madarikatuak

Larunbat gaua Euskal Herrian non nahi Itziaren alaba dago gaur ateragai Lagunekin patxa, peta, kepa, musikaz blai Momentuz gure neskatile dago alai Goizeko bietan beste alderat doazte , gauez Pausun pasa bainan zipaioak hor dira bai, Bere mutil laguna gartzelan dagoenez Tranpan erori da abere salbai “Stop, baja del vehiculo“ le dice el cop begiak labana baten hortzak bezain zorrotz jefea doa kamioirat, inguruan guardia bortz esku nerbiosak ferekatzen heien eta-eskop oihuka dator Kapo Senor, lurrerat bota denok hor kanoian loa zanpez elkor, bere oihuekin okerkor azala lehor, gauez inguruan nehor, eman diotena harkor furgonetan saka begiak tapaturik, orduak eta bidea , nun den jakin barik zulo batetik bestera dute botatu, oraindik amets gaiztoa aurrerat doala daki bakarrik Flash, itsutu, neoien argia da piztu Galderak dituzte kolpe Errantzunik gabe, itzal berdez bete beretaz dira jabe, bilakatu, bainu, humildu, biluztu dute Bost minutu edo egun bete ezin esan Pistola kopetan ohiu mutuen ohiartzunak Dira galtzen ilunan, esku lizuna, Pistola aluan, jasan ezina behar jasan... “Muerta” dio guardiak “quiero verla!” zintzilikan, kable batekin urkatuta lurrerat lerratzen zaio malkozko perla hala, azken hatsa, beretzat bukatu da...

Denbora pasatuko, lekuak dira aldatuko, Kongo-ko kasko Urdinak ez ditugu ahantziko Algeriako egia.. frantsesek pikatuko Bainan behin eta berriz da errepikatuko Sontag-en argazki pikzelizatua Zakurren zakurra zanka, barbarizatua Burua enkaputxatua, biluzik, ikus ezina dute oraindik Delokalizatua...Abu Grahieb ta Fresnes, itzalpe askoren itzalian Eskuak loturik, zenbat zuizidatuak Bakoitzaren kontzientzian dira zintzilikan Fruitu Madarikatuak...

“For the rain to gather, for the wind to suck,  
For the sun to rot, for the trees to drop,  
Here is a strange and bitter crop.”  
Billie Holiday



## Indigenak

Goiz huntan, eguzkiaren ferekak dira galtzen lanbroetan Emazte bat da bidean, bapatean, minaren haziak  
Sustrai hartzen eskola baten jostagunean Dena hasi zen hemen, debekatu zieten heien mintzaira mintzatzen  
Ta zirelako trufatzen, pixkanaka pixkanaka lotsa ari zen sartzen Haur hoiei ama hizkuntza ukatzen ez dute  
ukan eten Haurrak dira gaztetxoak laister bilakatu Irudia gertu, salbaia, debila zen agertu  
Barneratzen, urtzen, nehor ez ohartzen

Artaldean, abilek zuten bukatu Gazteak dira burasoak bilakatu ta direna egiten duena kasik galdu hala nola  
den abiatu, puta errepublikagailu zapagailu, jakintsuek zituzten moldean sakatu Nor haiz? Andereak galde  
egin haurrari Erantzunik eman ezin, aspalditik jositako haria zen hautsi Eragin ukaiteko zutik jarri, bere bila  
zin egin zion, zen martxan ezarri.

Represento al joven violento y marginal descontento con el estado de bienestar social!

Soy un indigena ingobernable indomesticable pasa el tiempo pero nunca me dejo gobernar por nadie!  
Somos indigenas que infringen las normas impuestas por un estado que no da mas que problemas a nuestras  
familias ! Indigenas, en esta selva a la que llaman sociedad, en libertad condicional ! Indigenas que  
desnudos por la selva van de rama en rama; rebeldes con causa sin pausa nacidos para matar a  
guardaespaldas! Aquí venimos armados hasta los dientes con las ideas calientes, partidarios del regimen  
comunista de revolucion permanente ! Somos indigenas nos tienes enfrente, con un pasamontañas que  
oculta nuestra identidad personal no la nacional !

*INDIGENAS! SOMOS INDIGENAS!*

EUSKALDUNAK! ETA BESTE MINORITATEAK!

AIZKORAK EZ BADIRA NAHIKO KARGA KANOIAK!

HEMEN ZUTIK ARO ERO BERO DIREN INDIGENAK!

*INIDIGENAK! GIRA INDIGENAK!*

AZAL GORRI ETA APATXE URBANOAK!

EZ GIRA GU IZANGO AZKEN MOHIKANOAK!

HEMEN ZUTIK ARO ERO BERO DIREN INDIGENAK!

Belaunaldi batez inperioaren eraikuntza, Garenaren gelditzen diren eskondren gainetik maiz  
Ezinbestekoa dela dirudi, nik diot, berekuntza, naiz Indigena lambda, euskalduna! Gero esnago da, gutaz,  
salbaiak garela, koloni seme alabak berdina dugu galera hainbeste mespretsugatik galdan da galdara  
beldurra, al da ba, tukatzen dutan galdera Kopetan kapelu, folkloreaken adelu Nagusitzeko salbaiari erabiliz  
katura-kari Ez gira hemen defendatzeko eremu edo gaztelu Bainan errespetua inposatzeko batailakari  
Integrazioa diote, aitor dezatela argiki Desintegrazio bikote, dute aspalditik Makina globalari gizonki horni  
garbiki Duintasuna lorezen da gure hilobien gainetik

*INDIGENAS! Con lanzas de acero! Contra taxistas que leen el ABC y escuchan Onda Cero!*

*INDIGENAS! Rebeldes y salvajes! Contra Sarkozy, Le pen, Aznar y Zapatero!*

Bota dezatela sorginek irrintzi deiadarra Zkratxa albolka, astindu break-dance txalaparta Momotxorro zyber  
punkiek zorroztu adarra, "Ti, ta" Kalimotxo Kloratita koktelen zarta!

BOOM! Venimos con el BOOM! Venimos con el BANG BANG! Para matar al rey!

BOOM! Indigenas que BOOM! Indigenas que BANG BANG! Para matar al rey!



## Kateak

Denboraren argi azkorretik, mila galdera Zangotan kateak, gizonen martxa trabatua Erestand pausua, gogoa nola altxa Kabaletik gizaki alderat eskuratzeko izaera Hasi naiz abiapundutik, Orreagatik zergaitik Lehen/azken segada eman eta geroztik Beti ote gu ginen ta gera galtzaile Beti ber-berak gelditzen diren zapaltzaile ? Nola Arrano Beltza armairutik zen airatu Mauroen zorigaitza herriari nahi inposatu ? Arrano kasatu, kateak bairatu, noiz desegin gureak libertadea berrosatu ? Ari karlista aroa arao bera zenik Jakin nahi duzula orain foruak galdurik UPNistek idatziko duten hixtorio ofizialik Gai al gera gu, Nafaroa atxikitzeko zutik ? Ikasi nuen, askatzaile frantsesen iraultza Nork daki zergaitik Xaho edo Matalas ziren altxa ? Urrats bat al zen hemen nesken bozen galtzea ? Marseillaise-arekin goitikatzan dut heien goraltza Zenbat euskaldun ere Franco-ren armadan Hainbeste al ziren oldartzen gerraren zapartadan ? Gernika giza laboratoriorio, heriotze jantzia Picasso-ren postalen esan nahi ahantzia Errefuxiatu biluzia Hesien atzean utzia Inork egin al du Europaren kolaborazio auzia ? Nahi nuke jakin nik, ingumak zainetan Zauriak idekiak diren oraindik, zer heinetan ? Lurra txikitu, hizkuntza mututu, kultura folklorizatu dute, zilegizko historio nortasun betseari transmititu, ez al da ohizko bidea kateak apurtzeko...

Kateak, idek burdinezko ateak, ditugu.. Kalteak, garen betiko zital, fisiko ala mental, zauri eta itzal atzetik erreستا ditzak erantzun minez galdan dira galderak...

Zenbat gogoetan galdu ote zira ondatua ? Zer zamintasun uzteko gartzetasun sasitara Gartzelatua aita, ezagutua joanez bisitara Eskema berdina askok ahalgabez errepikatua Sakabanaketa gutartekoentzat ohitza Ezin ikusiagatik, heien legeen sahieste Preso, senide ta herriaren zigor hirukoitza Orroitza ezin dezakete ahatik eraman ohointza Zenbat itzal ?... Joxi, Joxean eta beste Borreroaren aintzinean inungo iheste Azazkalak atera, gorpua urra gixuz bete Zergaitik gerra zikinari, denon begi heste ? Zendako batzuk gelditzen, besteak inoiz itzultzen ? Nun da Popo ?.. bainan oztopo Gutiak zakurrek ezartzen Hobendunekin lur azpian dute topo Guri egurra, Gatito Lindori fereka Egin al gaituzte heien Ardi Beltzak Nun ote da demokraten justizi oreka Kenduko al diote azkenean herriari hitza ? Nolaz atzo Itsasuko akordio osatu Gaur bozkatzeko agindua emanez Chirac-eri ? Aberri egun bakar bat ezin antolatu EKA Kola ? EH Kola ? ez dugu aitzaki...Zu ere al zaude hasiko garen ta noiz Sozialismoa hitzetik hortzerat behingoz Su etenak izango dira guztien esperoz Bainan kateekin bukatuko al dugu inoiz ?

## Errabia / Hagla

Gaur gauaren itzaltzean euripean Itzalak karrika itxoiten dute mezutzea Goizeko seiak sartu dira etxean izutzea Entzun eta oihu luze luzea Beste lagun bat gehio orain espetxean Ta zurrumurrua de barrio en barrio , haizea Ortzi bapatean, biltzen gira ixilpean Bihotza ta errabia ditugu hauzea Begiradetan senti dezakezu pisua Herenegun heriotzaren eskadroi odoltsua Atzo esistitzen ez den torturaren sua Herensugearen umorea igotzen , oldartsua

Deiadarra bota : Biafore ! Lasterka kaputxak karrika herronkari emango hemen erronka , aurrezko kaskaren korronka, suzko txorria, ia aska !

Errabia errabia... sortzen da sukarran Erori direneri agur eta ohore!

Errabia errabia ...kerozeno sugarran Erroitzan buka baino lehen ...Biafore !



## Andere Utopia

Idazten dizut gaurkoa, urruntzeko angustia Ez nuke nahi molestia baizik beharezkoa Bakoitzaren bidea batzutan biena bilakatzen Nerea eta zurea, hala gurea nola hasi zen Barne munduko xede, asmatu zintudan gazte Ta nire buru zoko hertsia zenituen bagoiez bete Ideki ate etsiak, goxatu biziminak Idealak nortasun sustraian amante Gure eztei ez tietan paradisuko azti Iraungo zuelakoan beti, bainan segi basa pizti Emeki emeki lo, ziurtasunez nintzen ito Bizi bakar ta labur zenik ez nuen ideirik izpi Izpiluaren aintzinean izerdika ero Errealitatearen oreka iheskora oso Sinesteak erantsi, hutsik gelditu naiz ni Burrutik ihesi, joan zira eta ni so Idazten dizut gaurkoa urruntzeko angustia Ez nuke nahi molestia baizik beharrezkoa Biena zen bidea batzutan ez da nahikoa Orain atzetik zaitut bilatzen Andere Utopia Pasatu naiz eta ikusi ditut gizonak Larre ta herrien gainetik ezartzen hesiak Ote ziren Andere Utopia ezagutzen zutenak...Ezet, preso ezarri behar ezin eziak Haurra ta alarguna babestuen zuen poliziari eskatu Beltza ta indigena behar zituela kasatu Legea zaintzen duen juhea nuen kurutzatu Koka saltzaile, botxatzaile zenez nintzen eskapatu Pasatu naiz eta ikusi ditut gizonak Hezkuntza zabaltzen ematen ari kurtsoak Ote ziren Andere Utopia ezagutzen zutenak...Ezet, Orwell-en hautxoak bihurtu behar klonak Apez ta kazetariei egon nintzen galdezka Jedeer beldurra sakatzea zuten beren kezka Sozial laguntzaile ta musika askatzileekin hizka Miseriaren bidez ta haizez irabazten bazka Pasatu naiz eta ikusi ditut gizonak Batzuk zutik hilak, egunero hiru-zortziak Ote ziren Andere Utopia ezagutzen zutenak...Ezet, kreditoz ito ziren esklabu mereziak Ama Lurra lantzen duen laborariari Diru gosez alorra saldu nahi argi zen agerri Espaloi hotzean eskale bat zen exerri Ikusi zuela bainan aspalditik ilusioz zen erori Pasatu naiz eta ikusi ditut gizonak Makinen atzean aitari lana eman zietenak Ote ziren Andere Utopia ezagutzen zutenak... Ezet, nagusiek esplotatzen beste zonak Medikuek hemen omen sendatzen gaixo dena Eri ta erosle nahastuz, gezurtu bokazio ona Teknikariek ere pentsatu inobazio tona Sateliten barrandan, alienazioa ordutik hona Pasatu naiz eta ikusi ditut gizonak Begirada sakon baten atzean zaharrak Ote ziren Andere Utopia ezagutzen zutenak... Ezet, bilatzen dutana ta ustel adarrak Nitaz ziren trufa eta belarrietan ufa Denok barnean genituela omega ta alfa Errebelde debalde, nire bidaide Gutxiren ohaide, sistemak duela erabiltzen bere alde Barkatu bainan berriro ere noa korrikan Auzoak jatzartzen diren oihuka karrikan Ikusi dut tranpa, ez urtuko nire hegala Ametsak ez ilegalak, « Société tu m'aurras pas » Andere Utopia, bai, bilatzen dutana Gira milioika bezala, kasu berdinean andana Ilusioaren ihiztari gira xedearen atzetik itzalak Geldi ezingo dituzten uhainak...

## Flor de Retama

Saul, Amañur, De Tham, edo Ali ziur Dizute kondako ber-bera, ikaran bihur Etorri zirela armairu dirdiratsudun zaldun Gero tanke ehun, ematera egur Lurra erre, ura, aire, dena urra, dena lizun haurra eme bortxa, kea senditu urrun Geroz lehengo bakeari agur Orroaz ume hilak sortzen erotasun Batzuntzat erasoan errabia kilograma Besteak zutik hilak, humilduen zama Konbentzitu zituzten zirela zarama Belaunaldi batez ere, ez da izango uztaro Bainan mamia ezin ito, un éxito, libro Beti izango dira askeak lerroz lerro Hizkuntza bihotza eta gorputza lurrana Defendatzeko bai, beti aurpegian jo !

Amarillante, amarillando, Flor de Retama Oye mi canto Amarillante, amarillando, Flor de mi alma Oye mi canto Oye, la sangre del pueblo tiene, rico perfume, huele Jasmin, Lilas, LLauli, Margarita y tambien, polvora y dinamita.... Carajo !

Atzetik aurrera, eskuak altxa : soinu honek dauka ukabilka baten antza  
Eskuinetik ezkerrean, eskuak altxa : kopeta gora hemen ... duintasunaren dantza !

Zein dira zein eskuak altxatuz kontziente, egiazko beldurra ez dela guria

Zein dira zein, eskuak altxatuz baliente, askatzeko prest... heien furia !



## Tookie RIP :

1953.urtean sortu nintzen Orleans-en txoko batean. Gerra kalean, gerra etxean, kolpeak tartean, ezin nintzen egon bakean. Egun eta gau, milaka arau, ezberdina izanagatik jendeak epaitu nau, borrokak dirau, nik ez dut ezer hautatu zer da hau? Arriskuan bizia... nik egingo dut justizia. Kaleetan, zuen etxeetan, armak eskuetan hartu eta pan! Pan! Lurrean hila, 17 urterekin sortu nuen Crips pandilla, polizia nere bila. 8 urte, mila ezuste, mila iseka 4 hilketak leporatu dizkirate eta ez da berriketa, jarri arreta, hartu naute lasterka. Ez dut ukan ulertzeko denbora: zein da hilketekin lotzen nauen frogak? arrazakeria izango da, bestela zergatik nere epaiketan epaile beltzak kanpora? Ez dira nere paranoiak, justiziaren aurrean galtzen du arrazoiak!

Beretakoek diotenean eman heriotza Garbi, “xuri” zela zuen azken hitza  
Lehen ikusi bera ta entzun bere ahotsa, Orain soilik hezurak ta hilartitza

Bataila judizialak dira helmugara iritxi, Swartzi epaileak ateak ditu itxi Nire atzetik aterabiderik gabe , abere bitxi Bat bezala hiltegi... argi gutxi Azken afaria, ta zigarreta du ezetu Apaiza piztu, mazkarada hau otoi moztu Aintzina, Bost zakur ditu inguruan, erori zurrunbiloan gelaren argia agerian Argi xuri, itsugarria, jada dute jarri Ta berinaren atzean, testiguetan, familia ote Estekatu, itxura du kalme, barnea ikaraz bete Hala ziringaren zizpa du ataute Eternitate bat ta injekzio bigarren bat Lurrean begira lainotsu da odola tatxa Hanka, besoak, hatsa doa ahotik at Kanpoan ilargi gorria da altxa Dikzioa ahalgabetik eskapatzeko erabiliko Dikzioa bestenaz guda bidean ibiliko Stan-en mezua bai agerian, bigarren aukeraren alegia Talion legearen egia agian ! Gutarteko batzuk segitu hemendik afera Petizioak ibili dira ta estali esfera Humanoak zer gera ? Biosfera txikitzen duen aberea Gerra eskuinetik ezkerrean , mail ber-bera Egun hortan Lof aske eta Tookie-rentzat injekzio Haitz edo lore askori eman sekzio Kasko gogorak itxoiten udaberriaren kaska Akatsa dute gizon horiek : askatasun adikzio! Biolento, pazifikoa, errealista, magikoa... ez bazara tipo kategorikoa: estatuak begikoa, nahi duten politikoa... nahiko patetikoa berdinak abereak eta zirkoa. Boterea ez da eskuz aldatu soilik elastikoa. Kontua betikoa: zapaldu azpikoa. Ez al da tragikoa topiko tipikoa? Estatuari men egin edo aulki elektrikoa! Abu ali Abdu Rhaman eta Scot Panetti, Mumia Abdul Jamal ta asko bezala han dira beti, Aterabiderik gabeko pasaian bai, esperantza doa beiti...

## Bandera beltza

Untziratuz zaitez mende honen atrakoan Haspaldetik begirale gaur ganita ahoan Euskal musika nire jo mugan Aintzineko borta didate zerra, soinu bonba utziko diet atzekoan Lokartu, beldurtu, fotokopiatu Konformitatean eta letargian zira sartu Ta mesedes ixildu, 40 principales mixildu Belarriak odoletan, musika askea hil du Lehen bala, beraz, MC batek barrez dizu tira Zuen irratiak daukalako usaina kerra Telebistan bezala diskurtso ofizialen erra Zuen uhainetan emango dizuegu gerra Aizkora bikoitzarekin asko ginen hasi Begiak idekitzen mundu errebelde guztiari H bikoitzarekin, dena nahasi Dezibel guztiak dedikatzen orain iraultzari Lehen garai AK47 Gohaindura betez ginuen karga Ta aintzina ez baginuen teknika eskerga Oihu antifatxa bota k7in Gero etori zan AK Dena Pikutara Botatzeko gogoia, ez erakusiz txuri zapi Bat borrokan deno, hemen gira zazpi Desager baino, gora, gu ta gutarak Adiktua mikroari, suaren izpi Ezin soporta ez nagusi ez jainko Makina globala ezarri gaineke azpi Borrokan jarai ezak fin ta tinko! Bularrak biluzirik izerditan zegoen zuloan Musikari burdina pasatu zioten loan Sarean dantzan edo zuzenekoan Plastikozko borobiltik soina da eskapatzen Disketxeek saltzen entzulea ez duena beldurtzen Entzuleak entzuten, irratiak duena sakatzen Itzuli mitzuli, ipurdia ezin ikusi Arriskurik gabe ezer ezin da inoiz ikasi Bertsolari gangsta, zyber punki pirata Bi mutil, bi neska denak gira batuko Hala halakoak galerretan garelako Kalera kalera dugu baizik lortuko !

Kaska, aurrezko kaska Erriman arima, mikrofonon protesta Euskal musikari emango aurrezko kaska Kaska, aurrezko kaska... ¡ Jatzartzen, jendea mugitzen Bandera beltzarenak hemen ordezkak !



## Ekintza Hitza Baino Hobe

Pasa hitza, itzaletik ateratzen gira, itzulbiderik gabe, dena erre, itzela sortzen Basa hiza ? zidaten esaten H Bikoitzan erorita Jendea hasten da orain ikaratzen Etorri naiz, maiz, dutalako pentsatzen Denborarekin ezer ez dela aldatzen Orroitz haiz? Carrero Blanco-k zuen saltatzen, Franco kanporatzen Bainan kaporal frango dira mantentzen Gaur egun berdina dugu, baselinatua lagun, Itoiz ito dute pronto, ezagun ez dezagun Rota flexak gora, zueri besarkada ehun Jada lurra ikaran, ez da jatzarriko bigun Beti berdina dute koblakariak eszena Bla, bla bla, euskararen alde omen dela Jalgi hadi plazara, agonian dago zezena Bakoitzak gure mailan dugu ekintza zuzena

Ekintza hitza baino hobe Mikro mizto, arima mintzo, bainan beno ba, Ekintza hitza baino hobe Orekaren bila gelditu gabe Ekintza hitza baino hobe Ekintza zuzena sekulan geldi gabe

Ezezagun entzule bati bederen eztanda hitzen kantzak pizten ba dio barneko matxinada ezer ez da , alta ezinbesteko enbata prestatzeko pozoina, ekarri dutan ur tanta bakoitzak gure mailan, gaztetxe asanbleetan lan bildu, indartu, hedatu, hau da el plan altxapenik gabe ez dugu lortuko sekulan ematen ari azpilan hau da gure klan Gartzelan giza lan edo elkarte batetan Nun eta zelan, zure esku dago geldi zelatan Hautatu dugun hitzen bidea, armatuz elea Kontzertuz kontzertu, segituz ekintzen linea Haundituz katea , ikusiko dugu ea Sistemaren asarreak sortzen duen musika sarea Hala halakoak galerretan garelako Kalera kalera dugu baizik lortuko Arraza erre, erreza! Gure artean zubiak ezarriko Kalash MAK prest ! datorren gudarako... Sorkuntza betirako ekintza dagoelako Prest ! datorren gudarako.... Ekintza hitza baino hobe baina beno ba, Egin esaten duzuna, ta zergaitik danba Zenbat kolpe gaizki ulertuak falta berba Salatari bati bi bala, bai, baldin bada Biba damurik gabeko ofentsiba, Aplikatzen baginu, hitz hoi lehen silaba Hitzetik Hortzera zira zure lehen traba Ta aho haundi goitikatzaileei, ..bi zafla!

## Hitzak

Hemen hitz ustelak agintariarenak Lotsik gabeko palto itzultzearen soldaduak Sahiestearen profesionalak, hitzak ditu janak Boterearen balak, hain merke salduak Mamu beldurgarri baten hariak mugituz Kolorez hitzak hustuz, zure pentsaketak laga Biharamun hobe baten promesan sinistuz Oraia dute garesti beti berdinek paga De Juanaren hitzak ikaratuak dabilta Paperan etzanagatik hilobitu diote ziega Epaileen hitzen jukutri, ahoan giltza Bidarteri sententzi, justiziaren sega Gartzel hitz galduak, gutunen amaitza Komuneko paper, paret, gordeleku gaitzak Liburu baten lerroen artean eskapatu direlako orain aske, alde egin dute hega Heriotzaren atea zabaltu diguzu apez Moralaren izenean predika erainez Homofobi, HIESa lurran infernu ordainez Arrazakeri ziliportak bota botere ahozpezt Hitzak azala zilatzen dituzten itzeak Zantzez saka nahi bai, etsaienak Ez ditu ixilduko gartzelak, torturak, hiltzeak Haizeak eramandako, esperantzarenak...

Hitzak dira...

Galde egin zenbat aldiz kazetari Murdoch-i “askatu” hitza belarri ertzean ixuri iragarki Iraken , kolonizazio irentsi, beste toki Palestinan berdina, munduak du onartzen pasiboki Zenbat aldiz lapurra arabiarra zen noski Zenbat aldiz gezur hezur marraska estrategi Zenbat aldiz pitokeri errepika izaiteko egi Ez estona bidean ez bagira ibiltzen etikoki Historio liburuetan koloniak homen positibo Garaileek dutelako idazten heien bertsoia Arrasto gezurti, zentzura ixilaren motibo Apreziatuko lukete Setif ta Guelmako lesioa Hitz eskasa edo paperan tatxa odoltsua „By any means necessary“ hitzak emaneta Gureak eginik, ahal bezala gaurko amesketa Bainan farez birziklaturik galtzen dute sentsua Truka hitzak izaitez heien Novlang-an Sekuritate diktadura ordezt, gerra alda bakezt Hitzet etzt hitzet erantsi, ulertzen baduk nekez Shomsky-k ditu giltzak berbazo gartzelan Baina Orwell edo Lurdes-en disidentzian maitasunezko hitzak bizi ziren bederen gaezt Gaur aditza emaiten ahal dugun garaian nora desagertu dira , ezin esanak araezt Hitzak, bai, nireak, ez onak ez txarrak Zuzen berdin debalde, nekez hautatuak Zer diote zurek hau entzuterakoan Beharrezkoak ditugulako hautatzeko bidea Erabiltzeko aukera ezin baztertu eskubidea Galdu baino lehen elkorak, laberinto ilunetan...